



© KONTZERTUA

Anabasa eta argia



Hofesh Shechter Company-aren "Grand Finale" Bilboko Arriaga Antzokian.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Oso gutxitan aurki dezakegu dantza garaikideko ikuskizun original bat. Ematen du garaikidea izateagatik zerbait berria izan behar dela, baina etiketa horren atzetik askotan hala moduzko espektakuluak eskaintzen dira, Maurice Béjarten edo Russell Maliphanten estiloa jarraituz (modu traketsan askotan). Horrengatik, zerbait benetan fresko eta iradokitzaile baten aurrean gaudenean wow bat ateratzen zaigu.

Zur eta lur utzi gintuen Hofesh Shechter koreografo israeldarraren azken lanak. *Grand finale* koreografian, egilearen hitzetan, komikotasuna, edertasuna eta bere buruarekin desadostasunean dagoen munduaren isla nahasten dira. Ez nago oso ados deskribapen horrekin.

Deserosotasuna, goibeltasuna, kaosa, eta momentu batzuetan kaos horretatik atera daitezkeen argi izpi batzuk sentitu ditzakegu, baina komikotasunik ez, barregarritasunik ez, arrastorik ez.

Dantza eta musika zirrargarri baten bidez –koreografoarena da musika ere–, munduaren anabasari buruz, gure zibilizazioaren kolapsoari, lur-jotzeari eta, beharbada, berreraikitzeari buruz hitz egiten du *Grand Finale* espektakuluak, Shechterren koordinatu estetikoak jarraituz. Oso estilo berezi eta berezkoa du Shechterrek: giro estugarria, argi bizia, soinu estridentea, dantza histerikoa baina milimetrikoki neurtua, perfektua, hauexek dira bere ezaugarriak. Une batzuetan dantza librea ematen du baina segituan urtu egiten dira dantzari guz-

GRAND FINALE. HOFESH SHECHTER COMPANY

KOREOGRAFIA ETA MUSIKA:
HOFESH SHECHTER

ESZENA-ZUZENDARITZA:
LEON SMITH

BILBOKO ARRIAGA ANTZOKIA
AZAROAREN 2a

tiak koreografia guztiz konplikatu eta doi-doi egiteko.

Bestalde, berrikuntza interesgarriak dauzka proiektu honek. Dantzariak nahastu egiten dira musikariekin –bost musikarik jotzen dute zuzenean–, haien artean elkarri eraginez, eta, honez gain, ikuskizuna aberastu egiten da taldearen lan korala eginez, dueto eta hirukoteen bidez.

Horri guztiari gehitzen badiogu musikariek atsedendian egindako numerotxo komikoa, ba, esan behar da oso saio atsegina izan zela. Ez bakarrik atsegina, bikaina esango nuke. Shechterren artea hipnotikoa da, harrapatzen zaitu hasieratik bukaeraraino eta, dantza bukatu ondoren, pentsatzen uzten zaitu. Gutxitan gertatzen zaigu hori. ●